

## Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago [www.baketik.org](http://www.baketik.org) webgunean)

## Gaiak

### Aurreiritzia, desberdintasuna eta zapalkuntza

**Aurreiritzia.** Istorioak zenbait pertsonen beste etiketak jartzeko eta besteak saikatzeko duten jarrera hutsala azaltzen du. Itxura eta azaleko beste detaile batzuk, ez beren jarrerak eta ekintzak, nahikoak dira behin betiko epaiketa egiteko.

**Desberdintasuna.** Pelikulak desberdintasunetan oinarritutako pertsonen arteko harremana kontatzen du. Desberdintasun horienganako begirada aberaste pertsonalaren iturri izan ordez burlarako aukera da.

**Zapalkuntza.** Pelikulan zehar nortasun zapaltzailea duten pertsonen izaera geratzen da agerian. Amaieran, bizitzak txanpon berdinen ordaintzen die.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**...barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

**...kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

**...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere.** Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

**...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu.** Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Zenbait galdera...

### ...pelikula ikusi aurretik

- Aurreiritziari buruz: Zer esan nahi du epaitzeak? Pertsonak epaitzen al ditugu? Zergatik? Zerk bultzatzen gaitu epaitzera eta etiketak jartzera?
- Desberdintasunari buruz: Desberdinak al gara geure artean? Zergatik? Desberdintasunek batzen edo banatzen gaituzte? Nola?
- Zapalkuntzari buruz: Zer egiten du zapaltzaile batek? Zergatik jokatzeko du horrela? Nola jokatzeko dugu zapaltzaile baten aurrean? Inoiz beren konplizeak izan al gara? Zergatik?

### ...pelikula ikusi ondoren

- Bouchant jauna eta bere lagunak nola dibertitzen dira? Zergatik uste duzu jokatzeko dutela horrela? Zergatik egiten diete barre beste batzuei?
- Pignon jaunak erantzuten duen azkeneko telefono-deiak zer ematen dizu aditzera? Bouchant jaunak horrenbeste nahaste-borrasteren ondoren zerbait ikasi duela uste al duzu? Zergatik?
- Bouchant andereak senarra dela-eta ondorengo esaten du: «Ez nau maite, ez du inor maite». Zer esan nahi du?
- Ba al da «tentelik» filmean? Nor? Zergatik?

Itxasne Etxeberriaren laguntzarekin.

# La cena de los idiotas

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Le dîner de cons.

URTEA: 1998.

IRAUPENA: 77 min.

HERRIALDEA: Frantzia.

ZUZENDARIA: Francis Veber.

AKTORE-ZERRENDA: Thierry Lhermitte, Jacques Villeret, Francis Huster, Daniel Prevest, Alexandra Vandernoot, Catherine Frot.


EKOIZPEN-ETXEA: Gaumont International/ Gaumont/ EFVE/ TF1 Films Production/ TPS Cinéma.

## Sinopsia

Pierre Brochantentzat eta bere lagunentzat asteazkena tentelen eguna da. Ideia sinplea da: bakoitzak tentelen bat eraman behar du. Afaltzera tentelik ikusgarriena eramatea lortzen duenak irabaziko du. Gau horretan Brochant pleoriko dago: altxor aparta aurkitu du. Tentelalaena, François Pignon pospoloekin egindako eraikuntzetan amorratua. Brochantek ez dakiena Pignonek benetako balbea duela da: hondamendiak eragiten maisua da.

Cine para **vivir y convivir**

# La cena de los idiotas



**baketik** arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze-etikoa

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Gatazken eta Gatazken Erantzaren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Juventud y Acción  
Comunitaria

**baketik** arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze-etikoa

Centro por la paz  
Elaboración ética  
de conflictos

943-251005

[www.baketik.org](http://www.baketik.org)